

**ANDIMA IBIÑAGABEITIA, IMANOL  
BERRIATUA ETA GORGONIO RENTERIA  
idazleei omenaldia**

*Elantxobe, 2006-V-26*



Euskaltzaindia



Elantsooko Udala

*Andres Urrutia Badiola euskaltzainburua eta Amaia Eiguren Arza Elantsoeko alkateak atzegin handiz gonbidatzen zaituzte, Andima Iñzagabettia, Imanol Berriatua eta Gorgonio Renteria euskal idazlearen omenezko ekitaldira, 2006ko maiatzaren 26an, ostirala, arratsaldeko 18:00etan, Elantsoeko San Nikolas elizan. Hona hemen agitaraua:*

- Alkatearen ongietorria
- Euskaltzainburuaren agurra
- Txomin Peillen: "Andima Iñzagabettiaren nortasuna".
- Bernardo Atxaga: "Andimaren itzulpen bat eskuan".
- Xabier Kintana: "Imanol Berriatua: euskal etorkizunaren eredu".
- Igone Etxebarria: "Gorgonio Renteria, idazle".

\* \* \*

*D. Andres Urrutia Badiola, presidente de Euskaltzaindia, y D.ª Amaia Eiguren Arza, alcaldesa de Elantsoe, tienen el honor de invitar a Ud. a la sesión pública que, con motivo del homenaje a tres escritores vascos de Elantsoe (Andima Iñzagabettia, Imanol Berriatua y Gorgonio Renteria), se celebrará el día 26 de mayo de 2006, viernes, a las 18.00 horas, en la Iglesia de San Nicolás de Elantsoe, según el siguiente programa:*

- Bienvenida de la Sra. Alcaldesa de Elantsoe
- Palabras del presidente de Euskaltzaindia
- Txomin Peillen: "Andima Iñzagabettiaren nortasuna".
- Bernardo Atxaga: "Andimaren itzulpen bat eskuan".
- Xabier Kintana: "Imanol Berriatua: euskal etorkizunaren eredu".
- Igone Etxebarria: "Gorgonio Renteria, idazle".

## **ANDIMA, IMANOL ETA GORGONIO ELANTXOBETATARREI OMENALDIA**

*Amaia Eiguren,  
Elantxobeko alkatea*

Arratsalde on eta eskerrik asko etortzeagatik.

Herri honentzat, Elantxoberentzat, ohore handia da gaurko lan saioan gure Hizkuntzaren Akademiako kideei ongietorria eta harrera egitea.

Euskaldunok zorte handia daukagu. Izan ere, Historian zehar bidaiatzeko aukera ematen duen denboraren makina ospetsu hura benetakoa izanez gero, gure arbasoekin topo egingo bagenu, haiekin euskara oinarritzko eta soila erabiliz komunikatzeko gai izango ginateke, eta talde bateko kide garela ohartuko.

Europan hori egin ahal dezakeen Herri bakarra gara, eta, agian, munduan horretarako gai diren gutxietako bat. Zorte handi hori ez daukate beste batzuek, arbaso horiekin komunikatzerik izango ez luketen horiek, konkistatu eta kolonizatu zuten haien hizkuntzan baizik mintzatzen ez dira-eta, haiek bezalakoak izan gaitezen gura izateaz gain.

Horregatik eskerrak emon gura deusaguz Euskaltzaindiari, baita bertako kideei ere, Elantxoberen izenean, haiek gauzatzen dute-eta mirari hori, euren lan eta ahaleginarekin.

Eskerrik asko.

## ANDIMA, IMANOL ETA GORGONIO IDAZLEEI OMENALDIA

*Andres Urrutia,  
euskaltzainburua*

### Agurra

Elantxobeko alkatesa eta zinegotziak,  
Euskaltzainkideak,  
Elantxobeko guztiak,  
Arratsalde on.

Nork bere ametsen artean izaten ditu halako batzuk, barru-barrukoak, bizitzan zehar behin bakarrik gauzatzen direnak, edo, beste modu batera esanda, sarri baino, bakan eta bakoizturik gorpuzten direnak.

Halakoxea da gaur egunekoa niretzat. Hain zuzen ere, Elantxobeko herrian, Elantxobeko euskal idazleak omentzen ditugula, elantxobetarrei berba egiteko aukera izatea. Ez da, ez, aukera eskasa, Ogoñoko punta etxeko duen batentzat, etxean entzun baintuena, ume-umetatik, Elantxobeko zertzeladak. Hamaikatxo bider etorri naiz, etorri ere, Ibinagatik behera, Elantxobeko portura nahiz goiko aldera, aspalditik munduan zehar ibilitakoa babes eta kai ezagun eta amultsura datorrenaren antzera. Tankera horretakoa da niretzat Elantxobe, Natxixun, Ean eta Ibarrangelun erroak izan eta aldian-aldian hona etorri bitartean.

Denborak, alabaina, laburtasunaren izenean dihardu, eta, ondotxo dakienez, ni baino jakituria handiagokoak daude gaur gure inguruan, zuei hitz egiteko prest.

Zilegi bekit, nolana ere, eurok aurkeztu bitartean, bizpahiru gomuta plazaratzea, Euskaltzaindiak Elantxoben duen egokiera baliatuta:

1. Joan bedi lehena gure gaurko hiru idazleak gogoratzeko, hain justu ere, aldi eta egoera desberdinetan euskarari eusteko gauza izan zirelako. Kronologiaren aldetik, hasierakoa da Gorgonio Renteria, Igone Etxebarria euskaltzain urgazleak aipatuko dituela haren xehetasunak. Gerokoagoak dira Andima Ibinagabeitia eta Aita Imanol Berriatua. Bi-

-biok elantxobetak, bi-biok euskarari atxikita, euren ibilbideak dira erakuslerik agerikoenak garai bateko euskal kulturaren esparruan. Hartara, eurok ezagutu eta gerora ere, euskalgintzaren eta euskal letretako ahaleginetan aditu diren hiru euskaltzain oso izango zaizkigu hizlari: Xabier Kintana, Berriatuari buruz, eta Txomin Peillen eta Bernardo Atxaga, Ibinagabeitiaren inguruan.

2. Hiru izateak ez du ukatzen laugarrenaren aipamena, abagune ezin aproposagoa baita hau Ruiz de Azua'tar Andoni, *Ogoñope* (1904-1974) zuen aurrean aipatzeko. Elantxobeko euskaltzale eta abertzale sutsua, haren lanak, kazetaritzakoak zein bestelakoak, oraindik ere bildu gabe daude, norbaitek noizbait batuko dituelakoan. Gomutaren gomutaz, gogora ekar ditzadan haren *Ipuñak eta izkirimiriak* (Bilbo, 1936), eta kazetaritza-artikuluak, *Euzkadi*, *Eguna* edo *Aberri* argitalpenetan. Gerra ostean Mexikon erbesteratua, *Euzko Deya*, *Ekin* eta osterantzeko aldizkariaren ardura ere izan zuen.
3. Idazleak, dena den, ezin sortu, horretarako girorik ez badago. Elantxobeko herriak aspalditik erakutsi du euskararekiko atxikimendua, eta horixe izan da betidanik inguruan bizi izan garenontzat eredu eta gidari. Niretzat ere hauxe da unerik egokiena hori aldarrikatzeko, Elantxoben bertan jaso nituelako, gazteago nintzela, Azkue zenaren gramatika eta Novia de Salzedoren hiztegia, eskutik eskura, *Anaitasuna* aldizkariaren sail oso batekin eta euskara aurrera eramateko aholkuairekin batera. Horrexegatik jarri nahi ditut gaur ageriko, elantxobetar guztien irudiz, Eufemia, Petra eta Alfontso Gabiola elantxobetarren izenak, euskaltzaletasunaren adibide nabari moduan. Horiena ere bada itsas euskaltzaletasuna, mundu zabaleko euskaltzaletasuna, Elantxobeko lehorrekoek zein itsastarrek beti adierazi dutena, eta egun omentzen ditugun idazleek ere egoki erakutsi zutena.

Eskerrik asko, beraz, Elantxobeko Udalarari eta herritarrei, egunotan eman diguten harrerarengatik. Eskerrik asko, orobat, euskarari erakutsi dioten atxikimenduarengatik.

Buka ditzadan nire hitzak, eta izan bezate orain nire mahaikideek euren txanda. Horren aurretik, hala ere, Euskaltzaindira etorri den mezua irakurriko dizuet, Andima Ibinagabeitia zenaren senideek bidalia, hauxe baita, zalantzarik gabe, arestian goiraipatu dudana euskararekiko atxikimendu horren erakuslerik begi-bistakoena.

Honetara dihardu:

ANDIMA IBINAGABEITIAren omenaldian

Idazki hau Andima Ibinagabeitiaren iloba den Miren Lore Mentxaka Ibinagabeitiak igorri dio Euskaltzaindiari Caracasetik, bere osabaren omenaldian jende aurrean irakurtzeko eskatuz.

Osaba laztana, azkenean lortu dozu zeuk merezi dozuna, orain danak dakie zeure bizitzan zenbat lan egin dozun euskeraren alde.

Andima omentzen dogun egun honetan, bihotzez gurako neuke zeuekin ego-tea Elantxoben, baina zoritxarrez, Venezuelan bizi naizelako, ezin neike hor egon.

Horregaitik, lerro honen bidez gura dot argitaratu Andimari deusodan mai-tasuna, eta beti bihotzean gomuta, eta hori dana zeuen aurrean adierazi.

Bere azken hamahiru urteak bizi izan zan geugaz, eta ordutik aurrera neure seme-alabak eta nik ere, euskeraz hitz egiten jarraituten dogu, Venezuelan bizi arren, hori izan zan neure osabaren erakutsia.

Eskerrik asko Pako Suduperi, Euskaltzandiari eta hor zagozen guztiari.

Agur beroena danori bihotzez.

*Mentxaka eta Ibinagabeitia 'tar Miren Lore.*

*Caracas-etik, 2006ko maiatzaren 26-an.*

Mila esker.

Esan dut.

## ANDIMA ADISKIDEA

*Txomin Peillen*

### **Nola ezagutu nuen Andima?**

Paristarra izan eta, hamar bat urtez familiaz kanpo, ez nekien euskaldunik bazenez, Parisen. Adiskideak ez nituen paristarrak, bretoiak baizik. Haien bidez, etxean aipatzen ez zen euskal nazionalismoaren berri, zerbait nekien. Behin, 1948.ean, *Ker-Vreizh* izeneko kultura etxean euskaldun kantariak etorri ziren. *Gernika* izeneko talde horretakoek esan zidaten, dantza eta kanta egiten zela Parisen Avenue Marceau, Eusko Jaurlaritzaren orduko ordezkartzan.

Jauretxe txiki horretan, ostegunez, dantzariak, eta kantariak biltzen ziren. Hara joan nintzen. Eta ez jakin nori zuzendu lehen solairuko bulego batean atea jo nuen; ez zen hor Gernikako bilera lekua, ez eta politika hitzaldi gela, baina atea ireki eta Andima Ibinagabeitia hantxe zegoen. Gizon adeitsu eta gurbila zen, pixka bat ordu arte ezagutzen nituen euskaldunak baino, esangura onean, kaletarrago.

### **Lehen ikasbidea?**

Lehen ezagutzaldiaz beti gogoratuko naiz. Frantsesez zuzendu nintzaion. Hark euskara nekienez galdetu. Nik ulertzen bai, baina ez hitz egiten ondo. Bazuen bi urte berriz zubereraz berba egiten hasi nintzela. Esan nion folkloreak adina interesatzen ninduela euskal nazionalismoak. Hark esan zidan

euskara ikas ezazu lehenik hitz egiten eta idazten eta gero beharbada, abertzale edo patriota izanen zara.

Beraz, euskararen maitasuna, han eta orduan, erakutsi zidan. Nahiz eta pertsona trankila, patxadakoa izan, argi zen Andimak hitza jaten zuten traido-reak eta ekonomia eta karrera arazoez gidatu faltsuak ez zituela gogoko, hala nola hainbeste *basque-français* abertzale eta *vasco-espagnol* nazionalista.

Marceau hiribideko etxe eder hartan ikasleak ere biltzen ziren. Behin abertzaletasuna gai izan zen, baina faltsukeriarik gabe, Mathieu, Mixel eta Nikolas Intxauspek aitortu zuten ez zirela abertzale, abertzaletasunak ez omen

baitzion ezer ekarriko euskal ekonomiari. Andimarentzat horiek errespetarriago ziren, abertzale faltsuak baino.

Andimak gonbidaturik, Aberri Egunera joan nintzen. Agirrek bost minutuz euskaraz eta ordu erdi gaztelaniaz hitz egin zigun. Ondotik, ezagutzen ez nuen Alderdiaren Ereserkia kantatu zen, baina denak isildu ondoren ez nuen, han gaztelaniaz baizik berba egiten entzun eta Andimak orduan esan zidan

horiek ez dira abertzaleak, erdaldun nationalistak baino.

Berehalaxe euskarazko bizpahiru klase eman zizkidan, baita Lopez de Mendizabalen gipuzkera osotua ikasteko ikasbidea ere. Oroitzen naiz urte hartako neguan, 1948.ean, Lizeoko irakasle baten zain ginelarik, Jakes Moal bretoi lagunak frantsesera itzuli zidala *Soldadoaren Mendi Gabota*, bretoietik eta nik euskaraz jarri. Hau izan zen nire lehen euskal testua.

Handik ia bi urtera, Jon Mirande Andimaren bitartez ezagutu genuen anaiak eta biok. Andima zoritxarrez, joan zitzaigun baina pare bat urtez, gero gordeko dugun ohitura bat hartu genuen, bataren edo bestearen ordezkartizan larunbat arrastirietan, hilean behin, biltzea. Bakoitza zetorren bere idazlantxoekin; Mirandek olerkiak irakurtzen, nire prosa kritikara eskaintzen eta Andima aholkulari.

Andimak eman zizkidan eleberri batzuk *Ekaizpean*, *Joanixio* eta *Bizia garratza da*. Orduan, Mirandek bere idazlan ederrenak 1948-1953. urte horietan idatzi zituen, eta biok gipuzkera osotua imitatzen zuen hizkuntza batean idazten jarduten genuen. Andimak, bizkaitar izanik gogoz kontra bide hori hartu zukeen, baina aspaldian hartu, zeren gerraurreko batzuek «giputz» izena eman baitzioten eta bere hitzez Parisen 1953.ean idatzia:

Gainera gipuzkera osotuan pulunpatua nintzenez ere, kosta zitzaidan ene Bizkaiko euskarari uko egitea.

Bagenekien Andima kristau zintzoa zela eta geroztik pentsatu dut ez zuela fedegabez jesuitetan apaiztea utzi. Ez zen batere haserretzen gure sakrilegioak irakurtzen genizkionean. Hark zioen literaturan denetarik behar dela. Euskal Literaturari bere sakristau usaina kendu behar zitzaiola. Ez nuen inoiz entzun, ez eta irakurri Andimarengandik gure ideien kritikarik. Izipiritu zabal hori, bere jesuiten artean ikasitakotik zetorkeen, ikuspegi hori jesuita batzue-na izan zen, hala nola Zaitegirena, kristau ez ziren idazleei *Euzko-Gogoa* ireki baitzieten. Halatan ere jendetasunez gazteago ginen Peillen anaiak tratatzen gintuen. Lehen elkarri idazten baikenion, telefonoak uzten ez dituen oroitzapenak baditugu, hala nola behin Miranderi idatzi zion ez zizkigutela gauza batzuk aipatu behar guri, Peillen anaioi, zintzoegi omen ginelako. Halaber, Huitzin Orixeri omenaldia egin zitzaionean bakarrik jakin nuen Andimak ezkutatu zidana, alegia Jesuitetan apaiz egitekotan gertatu zela. Parisen zegoela, Andimak aita abertzalea eta ama maitagarria zizkigun aipatzen eta bere buruaz askoz isilago zen.



## Andima maitagarria

Zelango poza gurasoena esaten nienean Andima gonbidatu behar genuela. Eurentzat familiakoa bezala zen: egia da amaren aldeko Etxekopar lehen-gusuaren antza handia zeukala, eta bestalde kaletar manera onak zituela; gainera, gurasoek haren euskara ulertzen zuten eta aita, euskaldun erdalzale genuena, apur bat euskaltzaletu zuen. Behin Guatemalako hiri nagusitik, 1954.eko azaroaren 14an idatzi zigun:

*Txomin eta Robert Peillen' tarrei  
Paris'en*

*Ene aspaldiko adiskideak,*

*Ez zaituztet oraino ahantzi, nahiz eta ixillaldia behar baino luzeagoa gertatu. Ala ere, sarri ene gogoan ukan zaituztet anai biok eta zuen buraso maitagarriak. Aldi huntan bereziki are gogoanago izanen zaituztet, urbiltzen ari zaizkigun Eguberriak direla bide. Bai Eguerri gaua, bozkariozko gaua dio zuen zuberotar kantikak, bainan ez dut uste aurtengoak bozkario aundirik ene biotzari ekarriko dionik. Aberritik urrun, adiskide maiteengandik urrunago... Ez da errez, ez noski, ene barne au poztuko. Bortxatuko naiz Paris' ko Eguerri goxoen oroitzapena nolarebait berrituz, ene biotz au alaitzen.*

*(...) Urrentzera noa, ez ordea, agur bero bat zuei eta zuen buraso maitagarriei igortzeko.*

Aita, Andimaren urte berean hil zitzaigun, 1967.ean; aita lehenik eta orduan adiskidantza horren oihartzun bizia gutun batean irakur daiteke:

*Caracastik Orrillak 2. 1967*

*Ene adiskide maitea*

*Atzo iaso nuen zure agorrilaren 19.ekoa eta iruzpalau egun lehenago Jonen geroagokoa berri samin batekin: zuen aita ilara zela alegia. Eztakizu ondo zer nolako atsekabe aundia eman zidan berri goibel orrek. Bai biziki maite nituen eta ditut zuen gurasoak eta inoiz eztitut ahantziko zuen artean eman nituen ordu goxoak: zuen aita zenaren irudia beti daukat present, baita aren erran pullitak ere.*

*Eta orain denok utzi gaitu. Bai, erio aspaldi dabilkigu inguru-inguru adin batera eldu geranoi, eta gure ordua ez daiteke urrutiegi. Zuen amari elaraziko al dizkiotzu ene doluminok, baita Robert anaiari ere; eta bakerik ederrenean bego zuen aita maitea zena.*

## Andima adiskidea

Garai hartan euskaldun idazlegoa txikia zen eta elkar ezagutzen eta politika iritzien gainetik, adiskidetzen ginen; ez zen alderdirik eta orain bitxi lite-

keena, orduan Andima adiskidetu zen bere ideiake ez ziren Txomin, Jon Mirande, Koldo Mitxelena, Aingeru Irigaray, Jon Etxaide eta besterekin. Gauza bat, ordea, argi zen denak antifrankista ginela (Miranderentzat Franco ipurxuri ergela zen) eta hor ez geneukan eztabaida gairik.

Inork ez dizkigu adiskidantza horiek hautsi, nahiz batekin edo bestearekin adiskide izan garelako, gaurko abertzale hotsezko bat edo beste, nire zikintzen ibili. Hil zitzaizkidan adiskide guztiak bizirik baleude, erantzungo luke bere teilatua kristalez duenak ez dezala auzokoari harririk bota.

Andima kristaua izan arren ez zuen bekatuaren zer hori gehiegi onartzen ez eta garai hartan apaizek baino gehiago prakadunek erakusten zuten azalezko sexuaren aihar edo ezinikusi hori, nahiz atzean jende haiek zernahi praktikatatu.

Andimak, begi gaiztoz ikusten zuena zen sexu zapalkuntza euskal munduan eta abade batzuen zentsura; horregatik gustuko zituen Jon Miranderen olerki erotikoak eta kantu herrikoiak (Andimarekin parranda egun batez ikasi genuen k.k.ren himnoa). Bestalde erotika zela-eta Lafitte, Chabagno eta Mokoroaren inkizizioei erantzun zien, eta Mirandek Nemesio Etxanizen, Salvatore Mitxelenaren, Jokin Zaitegiren onepenak jaso.

Ez zen, ordea, bereizi sexua erakusten dituenetarik; halere gipuzkoar andre amorantea, ezkongabea, eduki zuela jakin nuen; hernaniarra zen, Parisen bizi zen, eta andre hark esan zidan zeinen deitoratzen zuen ez Venezuelara joana, gizon goxo harekin bizitzera.

Orduan, ez genuen sosik, Andimak, ordea, Miranderekin gonbidatzen gintuen Natibitate aldean, kabarete batera, espainol edo jazz kabaretera. Behin halako lekuan flamenko dantzari neska ederrek dantzan jarduten zuten. Eta tarte batean, Andimak esan zuen «*horiekin zer gauzak pasa nitzakeen*» eta dantzariak, Bermeokoak baitziren, «*zugaz ez*». Andimari gustatzen zitzaion ongi jatea eta edatea, baina ez zen Mirande bezala mozkortzen. Despedida egin genuenean *Invalides* aldean, hango parkean Andima, Jon, Robert anaia eta laurok lerroan jarri ginen eta belarrean ur soberakina utzi, Napoleon diktadorearen desohorez.

Beraz, Andimak bizia maite zuen, maiteegi apaiz izateko beharbada, baina horretan ere zuzena eta zintzoa izan zen. Horregatik Harengandik hartu nuen azken karta adierazgarria zen: bazekien garaiko medikuntzarekin ez zuela iraugo, orduan, ezpaiztiren koronariak halaxe aldatzen. Hona, gure aitaren heriotza aipatzen duen hartan zer idatzi zidan:

(...) Gainera bi ilabetean ondo-ezik nago, lanera gabe, biotzeko minez, koronaria delakoaren ersturaz. Aspaldikoa dut eritasun hori, bainan oraingo huntan bestetan baino gogorkiago jo nau».

## Andimaren herrimina

Nahiz Guatemalan, nahiz Venezuelan Euskal Herriaren ametsetan zen benetako abertzale eta euskaltzale sutua zena. Gutun askotan darabil gaia:

*Guatemalatik 1954.eko azilaren 14an*

Eremu auetan bada ikusgarririk, bainan ni asperturik nago. Gure Euskal Herria milla bider ederragoa da, txiroago izan arren...

Handik zazpi urtera 1961.ean, honela Venezuelatik idatzi zidan:

Zenbatetan damutu zaidan Europa maitea bazterrerat utzia. Lurralde auetara nintzanez gero usu erabili oi dut buruan Monroek esana: «Ameriketa amerikarrentzat». Ori baino egia galantagorik gizon orrek ez zuela esan uste dut, bere bizi guztian. Bai Ameriketa amerikarrentzat, ez guretzat geure erri doakabea biotzetik maite dugunontzat. Nere bost zentzuak antxe dauzkat jarriak beti, aberri noiz egaldatuko erpai. Baina egun ori zeru zola sakonean urrunago eta urrunagotzen ari zaidala dirudit izarbel its baten pare. Noiz eten ahal izango ote ditut lur oni lotuta nadukaten lokarri ilaunak? Ez iakin.

Caracastik bagilak 25-1957.eko gutunean berriz honela idatzi zuen:

Nun da gure Europa ederra? paregabeko Europa? Ez dago lurralde ori bezalakorik mundu zabalean. Alper dukete esan Ameriketak Ameriketak... Naiago dut milla bider gure Europa zaharra bere aje ta eritasun guziekin. Bada oraindik mundu ontan dirua baino garaiago dan zerbait, Ispiritua, alegia... Eta emen gaindi ez duzu orko ispiriturik aurkituko, eta dirua nekez...

Hil zen urtean, irakasle lan eskaintza egin nion Parisen, Europara itzuli zedin, ezen bere erantzuna baizik ez baitzait gelditzen, eskerrak emanez. Hil zen urtean bidali zidan gutunean dio:

Caracastik urrilak 2-1967

(...) eta eskerrik aunitz egiten didazun eskeintza ederraren alderako. Egia esan, orrako gurari aundiz nago, Euskalerriratzeko, gogo bizian alegia. Baina oraindik oztopo aundiak ditut nire Aberrian sartu ahal izateko. Gezurra dirudi baina ogei urtez gero ere, ez dituzte nere egintza miragarriak ahantzi. Dena den, bortxatuko naiz datorren urtearekin zuek ikusteko, eta mementu batzuez baino ezpadare, gure Paris'ko batzarrak berritzeko.

Andimak, aipatzen zuen, datorren urterik ez zen izan, ez zen anaitasun bilerarik izan, urte berean utzi gintuen. Bai Andima Ibinagabeitia ezagutzearekin, benetako euskaltzale eta benetako abertzale batekin topo egin nuen.

Andima Ibinagabeitiaren gorputza Caracasen egon zen, baina garrantzitsuena, haren arimaren oihartzunak, euskal letretan entzunen ditugu... euskara bizi daino.

## ANDIMAREN LIBURU BAT ESKUAN

*Bernardo Atxaga*

Liburu bat hartu nuen eskuan, eta pentsatzen hasi nintzen zein izan ote zen Euskal Herrian argitaratutako itzulpenen patua. Eskuan neukan harena, kasu, zeinek Virgilioren idazlanak osorik eskaintzen baitzituen: «Ibiñagabeitia´tar Andima´k lateratik euskerara» eramandako *Unai-kantak* eta *Alor kantak*, alde batetik, eta Aita Onaindiaren *Enearena*, bestetik. Tarteka, pentsatu ez ezik, liburuaren pasarte batzuk irakurtzen aritu nintzen, batez ere *Alor kantak*-en laugarren atalekoak, bai bainekien atal hori, erleei buruzkoa, Virgilioren ederrenetakotzat jotzen dela. Eta zioen Virgiliok, zioen Andima Ibiñagabeitiak itzulpenean:

Lenen eta bein, egoitza iraunkorra billatu bear da erleentzat, aizeak io ez dezakena (...), ardi ta auntz ibilkoiak lore artean iauzika ari ez ditezkena, edota zelaian alderrai dabillen bigantxak intza astindu eta belar erne-berriak zapaldu ez ditzakena.

Ez zegoen gaizki, inola ere. Agian zail samarra, nola gertatzen den maiz aspaldiko testuekin, testu klasikoekin, edota euskarara garbizaleen sasoiari itzultakoekin; baina irakurketa lasai batek aise menderatzeko modukoa.

Ez zen pasarte bakana; gainerakoek ere antzeko gozotasuna zeukaten:

Noizbait erlategi ospatsua ta gordeta daduzkan ezti-ondasunak soatsi nai baldin badituzu, aurrenik urez garbitu zaite, aoa ere xautu ezazu ta zoaz zuzi ke-iarria eskuartearen duzula...

Pentsatzen ari nintzen pasarte gozo horiek irakurri bitartean –gozo, idazkeraren kadentziagatik, ezen ez eziaz arduratzen zelako; nahiz eta, batzuen esanetara, latinezko *melis* eta hizkuntza erromantzetako *melodia* hitza elkarrekin lotuta egon–; pentsatzen ari nintzen, beraz, eta galdera arrunt bat heldu zitzaidan, gai serioen mezulari omen den erle bati sekula egingo ez niokeena; baina bai, bistan da, neure buruari: ibilia ote zen inor, ardi eta ahuntz ibilkoiak lore artean bezala, lerro horien artean jauzika? Zenbatek ote zuen irakurria liburu honetako pasarteren bat? Ez liburu osoa, ez atala edo orrialdea. Gutxiago: pasarte bat, laburra, lerro gutxikoa.

Galderak ziztada moduko zerbait eragin zidan, Virgiliok aipatu erleetako bat liburutik atera eta hozkada egin izan balit bezala, eta bertan behera uztea

erabaki nuen. Jarraian, airean gora eginez –erle baten modura orduan ere– gogoeta orokorrago bati ekin nion. Zergatik liburu hura euskaraz? Zergatik Andima Ibiñagabeitia eta haren hainbat kideren lana? Zein helbururekin?

\* \* \*

Iruditzen zait niri garai bateko idazle eta intelektual euskaldunek, 1936ko gerra aurrekoek eta, beren lanaren inguruko bi helburu nagusi izan zituztela: ez bakarrik ohizkoa, pragmatikoa, «fisikoa»; ez bakarrik irakurleak biltzekoa, haiengan era bateko edo besteko eragina lortu nahian –Kirikiñoren eta Lizardiren artikulua etortzen zaizkit burura; Salvatore Mitxelenaren poemak; *Torres-ko itsu-mutila* bezalako liburu erraz eta atseginen itzulpenak–, baizik eta, batez ere, bigarren bat, ez hain ohizkoa, ez hain pragmatikoa, metafisikoa: euskararen gaitasuna frogatzekoa; izan zitekeela euskara kultur-hizkuntza eder bat. Bigarren helburu hori gogoan, testu klasikoak itzultzeari ekin zioten: Homeroren edo Cervantesen hainbat atal aurrena, 1936ko gerraren atarian; obra osoak gero, gerra bukatu eta handik hogeit bat urtera hariari berriro heldu ziotenean. Aipatzen ari naizen Virgiliorena, adibidez.

Orixek azaldu zuen argi, 1921eko «Euskal Egunetan» Unamunoren esanak aintzat hartuta:

Nonbaiteko euskaldun berrilari batek egundaiñoko ergelkeri edo eztakit zerkeri esan omen-du. Zer, gero? Oraingo asmaketarako ez dela gai gure izkuntza, oso zarra dela, zaarregi, aspaldikoa dela. Zein ote-dugu gizon iakintsu hori. Etorri akit: zarra duk euskera, ala duk, aspaldikoa duk; baña ez duk zartu, ez zimeldu, ez igartu, ez amaundu. Gaur erakutsiko diat eginalean, gure izkuntza leuna dela, eze dagola, sasi-iakintsu orrek uste baño geiagorako gai ditekela.

Eta goroxeago:

Zer esango luke euskaldun erdelzale orrek, nik esanen banio nongonaiko izkuntzara baino gure ontara obeki itzuli ditezkeela *Iliada* eta *Odisea*?

Oztopoz betetako bidea zen Orixek, Ibiñagabeitiak, Zaitegik eta gainerako itzultzaileek hartutakoa. Zaila zen berez; are eta zailagoa Barojak, Unamuno eta antzekoak gogoan, «bertako kanpotar» izendatutakoen erruz; zaila halaber, ia ezinezkoa, «berta-bertako» joerengatik. Berta-bertako asko itzulpenen aurka baitzeuden.

Dio Andima Ibiñagabeitiak, auzi hori gogoan:

Zenbait urte dirala, liburutxo txiki bat erori zen zerutik bezala nere eskuartean, erderaz idatzia, gai eta auzi askoren artean euskerarena ere sakonki aztertzen zuena. Baiñan asieratik gogor ekiten zion itzulpenen aurka. Gogor esatea da, baina itzul-lan eta saio guztiak gure artetik zearo baztertu bear genitukela esaten zuen, kaltegarri izaki nork bere burutapen eta asmamenari leku egiteko. Uste au, gainera, zabal dabil gure artean eta bilduma ederra egin ditekela itzul-lanaren aurka esan oro bilduko bagenituke.

Ori dioenak, ordea, xalto batean iarri nai luke gure izkuntza millaka gizon argi eta idazle trebeen arnas eta ukituarekin mendez-mende landu eta erabiliak izan diran izkuntza handien mallan. Baña zero aztutzen dute izkuntza dotore oriek ere beuren asieran itzul-lanaren neke eta izerdi garratzez inguratuturik ari izan zirala.

Argudio hori zabaltzerakoan, gehitzen du:

Lenengo europar gudua ezkerro buru-iabe gertatu ziren aberri berrien izkuntzak ere itzul-lanean sendotu zituzten euren oin makalak, geroago, eurak euretara, kultur-zabaldietan zear errex eta airoski ibiltzeko.

Leonardo Sciasciak dio ideia mortuek bizi-biziak ematen dutela askotan, hala nola sarraskiek inguruko beleen zalapartaren kariatz, eta –gure kasu honetan ere– arrakasta handiagoa izan dute Unamunorenak nola, beste muturrean, euskal esentzien zaleenak; baina, arrakastak arrakasta, ideia benetan biziak Orixen, Ibiñagabeitia, Zaitegi eta beren kideenak ziren. Haiek aldarrikatzen zutena, munduko obra nagusien itzulpenekin osatutako Euskal Liburutegi baten garrantzia, ideia zuzena zen. Zuzenagoa oraindik beren oinarritzko proto-ideia: ezin litekeela euskal hizkuntzaren edota euskal kulturaren aurrerabiderik gauzatu «itzul-lanaren neke eta izerdi garratzik gabe». Modu arruntago batean esanda, santuek baino arrazoi gehiago zuten... ezinbestean, noski, zeren zinezko santuak baitziren; bai behintzat beren pazientzia neurtuz gero. Ez zen xamurra izango unamunotarrak eta esentzialistak aldi berean jasatea: makina bat igoko zen zerura meritu gutxiagoarekin.

Ilusio sobera zeukatela esango du norbaitek. Arrazoiz, noski. Izanez ere, denok ikusten dugu orain, gaur eguneko gainetatik iraganari begiratuta, norainokoa den literaturaren eta liburutegien ahalmena, zein mugatua den, zein eragin gutxikoa. Denok izan dugu, bestalde, proventzerari gertatutakoaren berri, alegia desagertzeko zorian dagoela gaur egun, nahiz Nobel sariarekin hornitua egon, eta litekeena dela Frédéric Mistralen *Mireio* poemak irakurle gehiago izatea Euskal Herrian, Orixeren itzulpenari esker, bere sorlekuan baino. Nolanahi den, ez dit enbarazurik egiten idazle eta intelektual haien soberazko ilusio hark, santu guztiek izaten baitituzte antzeko okerrak desertuan gertatzen direnean, eta kixoteek, zer esanik ez. Berrito esango dut: nahiz eta ilusioaren lausoak apur bat nahastu, zuzen ibili ziren berak; ni neu behintzat bat nator beren planteamenduarekin: Euskal Liburutegi bat behar da, itzul-lana behar da. Horren ezean, ez dago aurrerabiderik ez euskal hizkuntzarentzat ez euskal kulturarentzat. Bi arrazoirengatik, esango nuke.

Aurren-aurrena, itzulpen mota horrek –Virgilio, Dante, Cervantes, Shakespeare edo Homero bezalako idazleen maisulanak Euskal Liburutegira ekartzen dituenak– «prestigio soziala» ematen duelako; antzinako greziarrek *timé* deitzen zuten hura. Prestigioa ematen dio hizkuntzari eta hizkuntza horretan bizi den gizarteari; *aura* bat, alegia, edota Donostian hainbeste entzuten den

*glamour* delako hori; ekonomista batek «lehen mailako irudi» bezala definituko lukeen ospea.

Hizkuntza edota kultura bati prestigioa emateko modu gehiago daude, noski, eta hor ibiliko da Urdia edo Sandia gure hizkuntza «altxor» bat edo «monumentu» bat dela esanez; itzulpenaren modua, ordea, beste maila batekoa da –lehen mailakoa–, zeren, mugimendua mugituz erakusten duenez, ez teoriarik baizik eta praktikan, bete-betean lotzen baita hizkuntzaren bizi baldintzekin. Zeren ez baitago beste sekreturik hizkuntza hazi eta lanabes on bihurtu dadin: praktika, erabilpena. Abdelkader Kilitok dioena kontutan hartuta diot hori:

Hizkuntza –dio Casablancako Unibertsitate irakasleak– xaboiaren kontrakoa da: zenbat eta gehiago erabili xaboiak, orduan eta urrituago eta xahutuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago.

Beraz, hitza biziko bada nahitaezkoa da errepika, nahitaezkoa da jendearen ahoan behin eta berriro egon dadin. Jakintsu arabiar batek ere hala adierazi omen zuen:

Hitzaren iturriak isuri egin behar du bere ura, gastatu eta alferrik galdu egin behar du bere ura.

Kontu garbia da, nire ustez. Virgilio, Dante, Cervantes, Shakespeare edo Homeroren itzulpenen bitartez prestigioa emateko modu horrek bigarren lan bat ere egiten du, funtsezkoa: errepikaren gurpilean, mugimenduan, zirkulazioan jartzen ditu hitzak.

Andima Ibiñagabeitiak, adibidez, «alderrai» terminoa erabiltzen du maiz. Atera egiten du gordeta zegoen kutxatilatik eta mundura bidali. Gaur egun, errazagoa zaigu hitz horren erabilera. Baina, lexikoarekin baino gehiago, sintaxiarekin egiten du lan, eta hau da, zalantzarik gabe, bere lanik garrantzitsuena; Ibiñagabeitia bezalako itzultzaileak, eta ia haiek bakarrik, egin dezaketena. Kontuan izan itzultzaileak estutu egin behar izaten duela hizkuntza, lan berriak eginarazten dizkiola –pentsa ezazue zientzia liburuekin ari direnengan–, ezin diola hizkuntzari bere kabuz, bere ohizko eran, aurrera joaten utzi; idazleak, bai, baina hark ez. Idazleak abandona dezake bere burua hizkuntzaren ur korrontean, har dezake aldi bakoitzean bihurturik errazena –nola egiten omen zuen Petrarckak Mont Ventoux-en ibili zenean, aldapa gutxien zuen bidezidorra hartu–; baina itzultzaileak, nahita ere, ezin du. Virgiliok idatzitako kadentzia, tonua, zehaztasuna errespetatzea beste erremediorik ez dauka. Lehia horretan itzultzaileak forma berriak jartzen ditu zirkulazioan, ez bakarrik hitzak, eta hizkuntzaren erabilpen sofistikatu eta aberatsago baterako oina ezartzen du. Horrelaxe hazi eta garatu ziren hizkuntza guztiak. Ibiñagabeitiak aipatzen dituenak:

lenengo europar gudua ezkerre buru-iabe gertatu ziren aberri berrien izkuntzak,

baita munduan nagusi dabilzan beste guztiak ere. Ingelesaren zein frantsesaren edo gaztelaniaren oinarrian latinetik egindako Bibliaren, edo Zizeronen, itzulpenak egon ziren.

Galdera bat datorkit orain, erle galdu baten moduan, gogoeta honen hasierako lerroetatik. Galde egiten nion orduan neure buruari: ibilia ote da inor, ‘ardi eta auntsz ibilkoiak lore artean’ bezala, Virgilioren itzulpenean jauzika? Zenbatek irakurri ote du liburu honetako pasarteren bat? Labur eta ziztadaren beldurrik gabe esanda: bete ote ditu Ibiñagabeitiaren itzul-lanak bere helburuak?

Alde batera bai, eta bestera ez. Batzuk bai, besteak ez. Lorpenekin hasita, uste dut hainbat idazle ahalegindu dela orrialde horietatik ikasten –ni neu, urrutira joan gabe–, eta zer edo zer zabaldu ditugula bertako tonu eta kadentziak. Eta, agian, idazle ez direnak ere arituko ziren ahalegin horretan, eta horregatik esango da orain, telebistan behin entzun nuenez, ez dakit zer futbol jokalaria «alderrai» ibili zela partida osoan. Bere alea jarri zuen, gainera, hizkuntzaren prestigioa handitzeko orduan, eta arindu, aldi berean, gerrarekin eta ondorengo diktadoreekin euskal kulturaren gertatutako etena.

Ekiten diot orain lortu gabeko helburuez pentsatzeari, eta iduri zait bat-batean burua erlategi bihurtu zaidala, eta erle guztiak haserre daudela, borrokan hasteko prest; Virgiliok dioen moduan, hain zuzen ere:

(...) bereala ateman diteke urrunetik taldearen gogoa gudun-miñez biotzak pil-pil; berantkorrak Martiren borontze-otserlatzak zirikatzen ditu, eta turut-ots itoa bezelako oiua entzuten da; orduan, dardaraz, elkartzen dira, egoak dirdari, ta eztenak zorrozten dituzte aztalak muturrekin igurtziz eta erregearen inguruan, iaurregian bertan ain zuzen, moltsoan biltzen dira etsaiari eupadaka; ta udaberriko egun ozkarbi eta paketsuan ateak bortxatu eta irteten dira...

Baina ez da gaurkoa haserrerako egun egokia. Andima Ibiñagabeitia omentzera etorri gara gaur Elantxobera. Haserretuko gara beste egun eta beste toki batean.



## **IMANOL BERRIATUA, EUSKAL ETORKIZUNAREN EREILE**

*Xabier Kintana*

Jaun-andreok, bihotz-bihotzez agur guztioi!

Estatistika asmatu baino lehenago ere, jendeak ahoan zerabilen kontua zen herri txikietatik ezin irten zitekeela goi mailako pertsonarik, ez eta gauza handirik ere. Baina horixe bera esaten zuten juduek Betlehem-en kontura, eta begien bistan dago ez zutela inondik ere asmatu. Horrenbestearainokoa ez bada ere, Elantxobek ere, bere txikian, maila handiko seme-alabak eman ditu. Lehenengo eta behin, herria kokatzeko hain txoko polita aukeratzen jakin zuten antzinako ezezagunak, eta harrezkero aldapan zehar, itsasora begira etxeak eta kaleak hain egoki antolatzen jakin dutenak ere bai. Ezin ditugu ahaztu arrantzale eta marinel trebeak, ez eta euskal idazleak ere, gaur ohoratu nahi ditugun hiru hauen antzera: Andima Ibiñagabeitia, Imanol Berriatua eta Gorgonio Renteria, besterik ere izan arren.

Askotan pentsatu dut mundu zabalean toki on eta eder asko badira ere, Iparragirrek berak gogoratzen zigunez, gutxi, oso gutxi izango direla gure planetaren luze-zabalean gaur ongietorria egin digun Bizkaiko marinel herri hau bezain zoragarriak. Horregatik aparteko zori ona izan zuen Imanol Berriatua Ibietak, Fidel eta Zeferinaren semeak, non eta hemen, Elantxobeko txoko honetan 1914.eko abenduaren 24an jaiotzeagatik, lehor berdetik itsasora jaisten den leku ikusgarrian, bertako uren ispiluan bere buru polita ikusi gura lukeen neskatala baten antzera.

Umetan Elantxobe utzi eta Gernikara joan zen bizitzera. Ume bihurria izan ei zen, eta nesken atzetik korrika joan eta haiek ikaratzea gustatzen zitzaien. Halere, orduko askoren antzera, fraide-bidea hartu zuen gure Imanolek, eta ikasketak Foruan, Arantzazun, Zarautzen, Oliten eta Burgosko Aguilera-n egin ondoren, frantziskotar jantzia hartu zuen 1938.eko ekainaren 11n, non eta Habanan, haraxe joana baitzen Espainiako Errepublikaren kontra militarrek eragindako gerratik ihes egitearren. Hamahiru urte Kuban egin ondoren, 1950ean berriz itzuli zen Euskal Herrira, Foruan, Bermeon eta Bilbon, frantziskotarren komentuetan bizi izanez. Foruko Frantziskotar Ikastegiko maisua, eta 1952-54 urteetan bertako errektore ere izan zen. Orduko bere ikasleen artean Joseba Intxausti, Fernando Mendizabal, Joxe Azurmendi, Joan

Mari Torrealdai edo Paulo Agirrebaltzategi aipa ditzakegu, geroago *Jakin* aldizkariaren bultzatzaileak eta, oro har, euskal kultura idatzian ospe handia lorturikoak.

Bermeon zegoela 1957.etik 1967ra arte, «Itsas Apostulutza»ko kapilau moduan bermeotar arrantzaleekin Afrikara joaten zen, Dakar aldera, bai eta berauengandik gauza asko ikasi ere. Jatorriz, bera ere portu batean jaioa zen, eta horregatik ez da harritzekoa itsasoak gogorki erakartzea.

Gaztetandik Imanolek bi zaletasun nagusi izan zituen: euskara, bere herrikoa, bere ama-hizkuntza, garai hartan frankismopean hain zapaldurik zegoena, eta atzerriko beste hizkuntzak. Eliz estudioetan ikasiriko latin, greziarra eta hebreeraz gainera, Imanolek frantses, ingeles eta alemana hitz egiteko moduan ere bereganatu zituen, bai eta, ulertzeko moduan, italiarra eta katalana ere.

Bilboko giroan Krutwig, Erkiaga, Gorostiaga, Otxolua, Akesolo eta beste euskaltzale batzuekin biltzen zen, eta azken aldiak Gabriel Arestirekin ere bai, beti gure hizkuntzaren egoeraz eta etorkizuneko irtenbideaz berba egiteko. Euskaltzaletasun horren saritzat, 1961.eko abuztuaren 25ean Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen. Harrezkero Imanolek Akademiaren biltzarretan sarritan parte hartu zuen, eta bereziki 1968an, Arantzazun batasunaren proiektua aurrera eramateko batzarra egin zenean. Ondoren ere, euskal aditza batzeko batzordearen kide izan zen, euskara batuan ekialdeko euskalkiekin bat zetozen mendebaldeko formak onartzeko ahaleginak eginez (gara, zara, litzateke...).

Idazle moduan, bere bokazioari jarraituz, erlijiozko lan batzuk prestatu zituen (*Kristiñau katezismoa*, *Lagunarteko mezea*, Kubatik heldu berritan argitaratuak) bai eta *Santa Maria Goretti* eta *Teresalina Zubiri*-ren biografiak ere (argitaratu gabeak). *Itsasoa eta ni* liburuan, aldiz, arrantzaleekin bizi izandako ibilaldiak kontatzen ditu.

Euskararen aldeko ekinaldi nagusiak *Anaitasuna* aldizkariaren inguruan egin zituen, bertako zuzentzailea izanez. Bilboko Iralako komentuko gelatxotik, Imanolek, pazientzia handiz, idazle gazteoi artikulua irakurri eta zuzentzen zizkigun, maiz, kontura zetorrenean, kostaldeko jendeari ikasiriko berbak tartekatuz: *haizea poparean*, *gizon leberra*, etab. Zenbaki bakoitzean, gainera, hiztegitxo bat prestatzen zuen, irakurleen euskal lexikoa aberasteko asmoz.

Imanol Berriatuak garbi ikusten zuen, euskarak, bizitzeko, munduko gainerako kultur hizkuntza guztien antzera, batasuna eta estandarizazioa behar zituela, eskolan, hedabideetan eta etorkizuneko euskal administrazioan euskaldun guztiok eredu bat izan genezan. Imanolek baina, argi zeukan euskara batua egiteko ez zela nahikoa, orduan eta orain ere zenbaitzuek oraindik uste duten bezala, erdialdeko euskara bakarra hartzea. Literatur eredia nafar-gipuzkoar-lapurtar euskalkien gunetik moldatua izan arren, nahitaezkoa zeritzon erdiko

euskara hori gainerako euskalki guztietako hitzekin osatu eta aberasteari. Eta *Anaitasuna*-n horixe egiten saiatu zen: euskara batuan ahalik eta hitz dialektal gehien sartzen, Bizkaikoak batez ere, beste euskalkietan ezin egin zitezkeen ñabardurak egiteko (*bertan / berton, anaia / neba, lurra / behearen gain, gorputz / gorpu, hatz / behatz...*) hizkuntza sinonimoekin dotoretzeko (*jausi/erori, askotan / maiz / sarritan, hizketan / berbetan, horma / pareta, nagusi / ugazaba, aitona / aitaita...*) eta herri-hizkerako esaera jatorrez gatz-ozpintzeko (*total lerdoa, toton egin, eurrez...*).

Oso harro sentitzen zen Imanol bere adiskide bermeotarren euskaraz eta beronen aberastasunaz. Bada pasadizo bat hori ederto erakusten duena. Behin, norbaitek Tolosako euskararen politasuna aipatu zuela eta, berak, oso-osoan, honela erantzun zion: «Ba, nire ustez Bermeoko euskara hobea da, hor, gutxienez jendeak euskara egiten duelako, eta Tolosan, aldiz, gehienei erdara besterik ez zaie entzuten».

Lehenagoko eta geroagoko euskaltzale askok bezala, –gaur teknologia modernoari esker astero beren goi-gidaritza elektronikoa eskaintzen digutenak ahortzi gabe–, Imanolek ere bazekien oraintsu arte irakaskuntza osoa erdara hutsez jaso duen jendeari euskal gaiak ondo irakatsi behar zitzaizkiola, erregelak azaldu eta erdarakadak eta erabilera okerrak zuzendu. Bestalde, Euskal Herri osoari begira, inoiz herriko esamolde bitxiak, nahasgarriak eta txokoke-ria batzuk eredu batutik baztertu behar izaten direla ere bai, euskaldunok elkar ondo ulertuko badugu.

Gogoratu behar da gauza bera egin zuela Euskaltzaindiak, hilabeteen ize-nak erabakitzerakoan, *garagarrila* hitzarekin ere, hego-ekialdeko euskaldunentzat gaurko «ekaina» zen bitartean mendebaldekoontzat «uztaila» zelako. Arrazoi berberagatik, gaurko esatari probintzianoegi batzuen *garraiozale, esnezale* edo *kamioizale* moduko hitzen ordeztu, euskaldun guztiontzat normalagoak diren *garraiolari, esneketari/esne-saltzaile* edo *kamioilari* gurago zituen Berriatuak, inori nahasbide eta belarriko minik sortzen ez diotelako.

Irakaskuntzari begira, hizkuntzaren homogeneousazioa ere maiz aipatzen zuen, eta inolako zalantzarik ez dagoenean, erro bereko euskal hitz guztiak, euskalki ezberdinetan garatuak, ahalik eta gehien grafia batu eta koherenteaz idaztea aldarrikatzen zuen, ikasle eta pertsona arrunt guztiei dialektologo izatea ezin eska dakiekeelako. Hortaz, h letrari dagokionez gaur oraindik pairatzen ditugun inkoherentzia absurdo batzuk (*hatz baina atzamar, atzapar, azazkal; hertsu, hertsatu, herstu, hesi baina estu, estutu; hosto, horsto baina orri...*) astiroago berrikusteak mesede besterik ez liguke egingo guztioi. Irakasle moduan dudak eskarmentuak eta ikasleen galderei arazo honetaz arrazoi koherenterik ezin ematean sentitu dudak lotsak ondo erakutsi didate norainoko arrazoa zeukan gure frantziskotarrak.

Imanolek, bestalde, garrantzi handia ematen zion alfabetatzeari, eta horregatik ez zuen pentsatzen euskaldunik jatorrena denik txikitandik euskara ja-

kin eta bizitza osoa euskaraz ezer irakurri gabe pasatu duena, eta are gutxiago, pertsona berberorrek bere erdara, neurri handiz behintzat, erdal liburuei esker landu duenean. Herenegun gauean euskal telebistan bertoko futbol talde famatu baten lehendakaria euskara penagarrian entzuteko aukera izan zenutenok badakizue zertaz ari naizen.

Bere Herriaren etorkizunean sinesten zuen Aita Berriatuak, eta horrexen aldeko apustua egin zuen bere bizitza osoan. Tokian tokiko txokokeria eta probintzialismoen gainetik Euskal Herriaren batasunean sinesten zuen, euskara batasun horrek ez bestek salbatuko zuelakoan. Gorago esan dudanez, euskalki guztietako aberastasunak, Bizkaikoak batez ere, euskara batuan integratzen saiatu zen beti, euskal hitz guztiak, esaten diren tokietako jendearenak ez eze, euskaldun guztionak ere badirelako uste sendoan, horiek geureganatzen ditugun neurrian. Horri esker, soilki iparraldekoak ziren *aldiri, deus, eraile, erizain, ihardetsi, jalgi, jin* edo *kausitu* gaur edozein euskaldun eskolaturen lexikoan sarturik daude, iparraldean hegoaldeko *amildu, garatu, berba, ikastola, jaurlaritz, jela, neba* edo *ulertu* gero eta ezagunagoak diren bezala.

Egia da, inoiz toki bateko eta besteko hitzak lasterregi nahasten ibiltzea, koktela oraindik aski eraginik ez dagoenean, gaurko egoeran bitxi xamarra gerta daitekeela, *berba egin gura ukan dut* bezalakoak adibidez. Eta inoiz, etorkizuneranzko urratsak lasterregi eginez, gure Andolin Eguzkitzak horrelako probokazio nabarmenak egiten zituen, baina, edonola ere, euskal lexiko amankomuna lehenbailehen lortzea, zalantzarik gabe, gure hizkuntza eta literatura-ren normalkuntzarako oinarri-oinarrizko baldintza da.

Euskal Herri osoko berbak zabaltzen diren neurrian, normala da, bestalde, hitz horiek berenganatu dituzten euskaldunek haien esangura jatorrari dagokionez, denbora joan ahala, jatorrizko erabiltzaileek bezainbeste eskubide izatea. Horregatik, harrigarria da, esaterako, *erresuma* moduko hitz ezagunari, berez «errege baten peko herrialdea» esan gura duenari, gure literatura klasiko osoan ageri den bezala –hegoaldeon behin eta berriro berrargitaratuan, gogora dezadan bide batez– orain iparraldeko zenbaitzuen erabileragatik berba hori «herrialde» esangura soila utzi nahi izatea, Estatu Batuak edo Venezuelak bezalako errepublikei erresuma esatea euskaldun irakurle gehientzat erabat absurdoa gertatzen dela kontuan izan gabe.

Erabilera orokorreko terminologiari dagokionez, Imanolek egiten zuen bezala, nazio-zentzuagatik Euskal Herri osoa izan beharko genuke geure ikuspegian, eta ez, bista laburrez, nork bere txokotxo. *Nazio bat gira* idatzia zuen bere pankartan hegoaldeko euskal alderdi batek Iparraldean egindako agerraldi batean, eta konturatu gabe, horrekin argi eta garbi erakusten zuen oraindik *ez garelako nazio bat, tribu batzuk* baizik, nazio serio eta egiazkoek beren hizkuntza normalizaturik izaten dutelako. Gauza bera pentsarazten digu Iparraldeko garagardo-fabrikatzaile batek, Euskal Herri osoan saltzeko ekoizten duen

produktuari hegoaldean sortu eta bultzaturiko *garagardo* berba ezagunaren orde, izen hori aldatu eta botilen etiketan azken orduko *garagarno* moduko asmakeria ipiniz, hizkuntza zibilizatueta behintzat terminologia berria ez dela hitz dialektaletara birmoldatzen ahaztuta.

Bizkaian normalean *urten* esaten den arren, aspaldian ikasi dugu batasunerako aukeratu den hitza *irten* dela, eta beraz, ez zaigu zailegi gertatu geure autobus, garaje, zinema zein eraikinetan *sarrera*-ren ondoan *irteera* irakurtzean, zer esan nahi duen ondo ulertzea. Horiek dira, hain zuzen, aspaldiko 26 urteotan euskara ofiziala daukan hego Euskal Herri osoan estandar moduan finkatu eta hedaturiko formak, edozeinek dakienez. Horien lekuan, Baionako aparkalekuan, frantses batuko *entrée eta sortie*-ren ondoan *sartzea* eta *jalgitzea* bezalako itzulpenak jarr(araz)i dituenak, on luke gogoratzea handik Irun eta Donostia hurbilago daudela Bizkaitik baino.

Arrazoi berberagatik, ez da batere ongi ulertzen, behin eta berriro aitortzen duguna, hau da, nazio bat garela sinesten badugu behintzat, auzo erdaretan beti era bakarrean ageri diren *Camino de Santiago / Chemin de Saint-Jacques* esateko, Euskaltzaindiak aspaldian *Donejakue* erabaki eta gero, oraindik *Santio-bidea* eta *Doni Jakobe bidea* bezalako kartel berriak jartzen segitzea, diziplina halako bertute txarren bat izan eta euskaldun jatorra izatearekin bat ez baletor bezala.

Txikitandiko euskaldunen alfabetatzeaz gainera, Imanolen beste kezka bat euskalduntzea zen, hau da, euskara ez zekitenak gure hizkuntza ikastera erakartzea, eta horretarako beharrezkoa zekusan gure irakasteko metodoak eguneratu eta erraztu behar zirela. Izan ere, ordura arte, euskara ikasteko liburu gehienak gramatikak ziren, hau da, hizkuntza zelakoa den erakusteko obrak, baina horiek, latin, greziera edo sanskritoaren barne-erregelak ikasteko balio bazuten ere, ez ziren egokiak gurea bezalako hizkuntza biziaz mintzatzen irakasteko.

Israelen juduek etorkinei hebreera irakasten egindako aurrerakada handiaren berri jakinda, hara joatea erabaki zuen, Israelgo metodologiatik zuzenki ikasteko. Hori dela eta, 1976.eko irailean Imanol Berriatuarekin Herrialde Santura bidaiatzeko zoria izan nuen, eta bertan elkarrekin hilabete eman genuen. Arieh Shoval jaunagandik, orduko Hezkuntza Ministroaren idazkaria zenagandik, era guztietako erraztasunak izan genituen, bai eskolak bisitatzeko, hebreera errazeko aldizkariak ezagutzeko, irradi-telebistetako zentroak ikusteko eta kultura eta politika giroko pertsona interesgarriekin hitz egiteko.

Bera bi hilabete gehiago gelditu zen Israelen, Ulpan batean hebreera hobeki ikasi nahi zuelako, hango gobernuak horretarako emandako beka bat eman zion eta. Egotaldi horretatik ondorio oso onak lortu ziren gure herriarentzat.

Alde batetik, berehala pentsatu zuen Israelgo Ulpanen modura, –hau da, pertsona nagusiei hebreera era trinko edo intentsiboan irakasteko eskolak– hemen ere antzeko zerbait egin behar genuela, erdaldun pertsona helduei euskara arin irakasteko: hortik sortu ziren, izenaz eta izanaz gure euskaltegiak, orduetik Imanolek horretarako sorturiko berbaz bataiatuak.

Bestaldetik, Imanolek, juduek etorkinei irakasten zieten עברית קלה *‘ivrit kalah* edo hebreera erraza hura oso mesedegarria zela ikusita, bertan ikasle erdaldunei begira oinarrizko euskara prestatzen jardun zuen. Alde batetik laguntza estimagarria eskaini zigun *Euskalduntzen* metodoa egiten ibili ginenei, eta haren lana ezagutu eta aitortuz, bere argazkia liburuaren azalean jarri genuen. Gogoratu nahi nuke, nori berea baita zuzenbidea, liburu hartako marrazki guztiak Jon Juaristi idazlearen esku trebeari zor zaizkiola.

Geroago, Imanolek, bere aldetik, *Hitz egin* metodoa prestatu zuen, bai eta ikasleentzako irakurgai errazeko beste liburuxka batzuk ere, *Ikasle Israelen* adibidez. Berak pertsonalki eskola asko eman zituen, batez ere Iberdueroko langileentzat. Hortaz, benetan esan daiteke, nire ustez, Imanol Berriatuari zor zaizkiola, neurri handiz, gaurko pertsona nagusien euskal irakaskuntzaren oinarriak.

Imanolek ez zuen inoiz galdu Israelekiko harremana. Hara eginiko lehen bidaiaren ondoren, Euskal Herriko ikasle eta pelegin talde batzuekin beste bisita bat egin zuen 1980an. Hurrengo urtean azken aldiz itzuli zen Kristoren jaioterrira, Ulpan batean hebreera hobetzeko hiru hilabete egiteko asmoz.

Arieh Shoval-ek eta bere emazte Shoshana-k Imanolen azken egunak nolakoak izan ziren kontatu zidaten. Iluntze batean, aldizka egin ohi zuenez, familia horren etxera joan zen, adiskidetasun handia zuten eta. Arrats horretan, bere ohiko umore onaren ordeiz, ilun zetorren eta ez zela ongi sentitzen esan zien, buruko min izugarriaz omen zegoen eta: «Buruan aizkorakada bat eman balidate bezala» izan omen ziren haren hitzak. Aspirinak hartuak zituen baina ez omen zioten mina kentzen. Shovaldarrek ospitalera joatea gomendatu zioten.

Biharamunean Jerusalemeko frantziskotarren komentuko aita nagusiak dei egin zien, Imanol ospitalera jada konorterik gabe eramana zutela esateko. Han egon zen artean bisita egin zioten Shovaldarrek, baina beti korderik gabe aurkitu zuten. Bi egun geroago hil zen, 1981eko irailaren 15ean, burutik beherako odol-jarioaren eraginez. Arieh-k kontatu zidanez, komentuko fraideak alde batera utzita, emaztea eta bera izan ziren Imanolen hiletan izan ziren pertsona laiko bakarrak. Huraxe izan zen, bestalde, Arieh-k eta Shoshanak beren bizitzan ikusten zuten lehenbiziko kristau hileta.

Sion mendian frantziskotarrek duten hilerrian ehortzi zuten Elantxobeko semea, horma-hilobi batean. Horrela bete zuten Imanolen azken nahia, Israelen hiltzen bazen, gorpua Euskal Herrira ekarri barik, lurra bertan emateko agindua zuelako, harentzat pozgarria eta ohorea baitzen Jesu Kristoren sorterrian betiko etzanik gelditzea.

Handik urte batzuk geroago, 1993ko irailean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolaturiko bidaia batean, euskaldun irakasle batzuekin Israelera itzuli nintzen, eta Imanolen hilobia bisitatu genuen. Neronek Elantxoben, Ogoño aldean, harturiko lurra eraman nuen, bere ondoan Euskal Herriko oroitzapena izan zezan. Bere hilobiaren aurreko zuhaitz baten inguruan utzi genuen, guztiok aita gurea kantatzen genion bitartean.

\* \* \*

Hebreera modernoa ikastera Israelgo kostaldeko Natania deritzon herriko Ulpan batera joan zen behin. Ikastegi horren izena: Akiva, horrela deitzen zen judu baten omenez. Dirudienez, Akiva gizon zaharra zen eta ez zuen ordura arte eskolara joateko aukerarik izan. Zahartzaroan baina, ikasteko gogoia etorri omen zitzaion, baina jadanik beranduegi ez ote zen hasi zen pentsatzen. Egun batean, iturrira pitxerragaz ur bila zihoala, txorrotaren beheko harria zularurik zegoela konturatu ei zen, iturriaren begitik tantaka jausten zen urak, denboraren poderioz beheko harria higatua zuen eta. Orduan Akivak erabaki bat hartu zuen: bera ere, uraren ekimen eta pazientzia berberaz, ikasten hasiko zen, falta zuen jakinduria eskuratu arte. Baita egin ere. Handik urte batzuetara Akiva jakintsu handia izatera heldu zen, eta gaur Nataniako Ulpanak haren izena darama, ikasteko inoiz ez dela beranduegi frogatu zuen zahar haren omenez.

Jerusalemeko hiriaren mendixka baten gainean Theodor Herzl (1860-1904) austriar kazetariaren hilobia dago. Imanol eta biok hor izan ginen elkarrekin 1976.eko bisitaldian. Berori izan zen XIX. mendean mundu guztiko juduek elkarrekin bizitzeko estatu propioa behar zutela aldarrikatu zuen lehenbizikoa (*Der Juden Staat* «Estatu judua» liburuarekin, 1896). Ez da harritzekoa gaurko israeldarrek hura beren nazioaren aitatzat edukitzea. Batzuek baina, bizi zenean, ameslaria eta burutik egina zela esaten zuten harengatik. Gauza bera aurpegiratzen zioten gurean haren garaikide zehatza izan zen gure Sabino Aranari ere (1865-1903). Baina Herzlek honela erantzuten zien alemanez judu ezkor haiei: *Wenn Ihr wollt, ist kein Märchen*, hau da, «Nahi baduzue, ez da ametsa izango». Hori orain ere errepikatzen dute Israeldarrek, baina, ametsaren ametsaz, hebreeraz: *אם תרצו אין זו אגדה*, *im tirtzu, eyn zo aggadah*.

Era horretako pertsonen antzekoa zen Imanol Berriatua bera ere. Beti ikasten, beti lanean, inoiz nekatu gabe, gaurko eta geroko euskaldunak gogotan, haientzako euskal bideak prestatzen, bere etsenpluaz euskarazko esaerak dioena baieztatuz: *ezina, ekinez, egina*.

Imanol, beti izango zaitugu gogoan. Har ezazu gaurko omenaldi hau zurekin dugun zor handiaren nolabaiteko ordain txikitat.

Eskerrik asko guztioi, jaun-andreok.

## GORGONIO RENTERIA IDAZLE

*Igone Etxebarria*

Elantxobe herri txikia da, itsaso gainean aldarrean etxeak eskegita dituela. Ha eta guzti be, gaur agerian geratuko danez, herritar ospetsu-entzutetsuak izan ditu. Euskereari lotutakoak, eta lehengo mendekoak bakarrik kontuan hartuta, gaur hiru gogoratu ditugu. Ibilbideari eta osterako itxitako eraginari erreparatuta, oso ezbardinak danak.

Nik berbagai daukadana, Gorgonio Renteria, kasualidadez etorri jatan esku artera. Haren alaba Julek han-hor-hemen arakatu eta lan handia egin eban aitaren idatzi gehien-gehienak batzen. Derioko Udako Ikastaroko ikasle izan zan, familiako beste kide batzuen moduan, eta hango hartu-emonak tarteko, Labayru Ikastegiaren esku itxi eban materiala argitalpena egiteko.

Nik lanari heldu neutsanean, halangoetan sarritan gertatzen danez, hasierako ustea, lanari eta testuei hasi aurretik hartutako traza, txiki geratu zan behin sartzen eta barruratzen hasi orduan. Alde bitatik, txiki geratu be: pertsonaren izaera, irudiaren ikuspegitik alde batetik, eta testuen alderditik bestetik.

Nik irakurri, entzun eta hortik eta hemendik hartu ahal izan dodazan testigantzetatik, gizon dotore, jantzi, atsegin, jendarterako aparteko dohaia eukana zan. Haren alabarik gazteenak, Amaiak, bizirik dagoan bakarrak, harro esaten eustan bere aitaren moduan txapela janzten ebanik besterik ez egoala inguru guztian be.

Lan hau egiteko ezagutu neban Garbiñe Natxitube, Gorgonioren ilobea, eta harek be beste horrenbeste gogoratzen eban, gizon dotore, apartekoa.

Eta halan izango zan, Kirikiñok be antzeko deskribapena emoten dau eta:

Esatera ninoian beragaz behin hitz egitea dala nahikoa bera maite izateko, hain da gizon lagun artekoa, argia eta prestua, baina esan behar dot, nahikoa dela bera ikustea horretarako.

Gorgonio Sabino Aranaren garaikidea ezeze, haren ideologiaren zabal-tzaile sutua be izan zan, bete-beteen harrapau eban haren pentsakera eta ideologia zabaltzeko garaiak. Galo Ibiñagabeitia, Andimaren aita, eta biok ibiltzen ei ziran, Gorgoniok hitzaldia egin eta Galok abestu. Galo, ostera, gazterik



hil zan. *A mí vasco* Ramon Goikoetxea Orkieta *Iber*-en liburuaren propaganda egitearren kartzelan sartu eben, lehenengo elantxobetarra abertzale izatearren atxilotu ebena. Handik urten eta, osasun arazoak gainditu ezinik laster hil ei zan.

Gorgonioren bizitzara etorrira, 1868ko irailaren 9an jaio zan Elantxoben. Lehenengo ikasketak herrian eginda, Nautika ikasi eta 1900. urtean Merkataritza Ontzietako lehen mailako kapitain titulu ofiziala atera eban Ferrolen. Birritan ezkondu zan, Julia Aurrekoetxeagaz lehenengo, horregaz hiru seme-alaba eduki ebazan. Julia hil eta Haren ahizteagaz ezkondu zan gero. Guztira 9 seme-alaba eduki ebazan.

\* \* \*

Haren bizitzan bi zati bereiziko ditugu. 23 urteko zala Filipinetara joan zan, Manuel Intxaustiren ontzioletan kapitain kargua hartuta. Han egin zituen dozena bat urte eta izen ezin hobea hartu eban, gizon artez baina zintzoarena. 1898an, hispaniar-amerikarren arteko gerran, Manilako Hong-Kong bankako deposituak bere ontzian hartuta ibili zan harik eta istiluak amaitu arte. Geroago, Estatu Batuetako Administrazioak Gorgonio ontziburu izendatu eban filipinar ugartearen mapa hidrografikoa egiteko. Zeregin hori zala-eta William Howard Taft Gobernadorearen lagun handia egin zan, geroago Estatu Batuetako presidente izango zanarena.

Haren bizitzako bigarren alderdia jeltzale moduan bete ebazan kargu eta ardurak osatzen dabena dira. Sabino Aranaren garaikidea zala, hasiera-hasiaririk, 1916 eta 1921 bitartean, Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan ardurak bete ebazan BBB eta EBBren barruan, Bizkaiko aldun izan zan Gernikako barrutitik. *Euzkadi* egunkariko kronikak ikusita, Elantxobeko batzokia zabaldu zanean gora handikoa izan ei zan, 1919ko ekainaren 9an, Sotaren atoi-ontziak bozina jotzen hurreratu zirala.

Ekitaldi horretako moduan, beste askotan be Gorgonio Renteria hizlaria oso estimatua zan jeltzaleen ekitaldietan. Berak berba egin, Galok abestu, ohikoa izaten zan, antza. Propaganda-gizon lez behar handia egin eban. Eta, haren garaian beste askok egin eben moduan, aldizkarietan behin eta barriro agertu eban bere burua, ezizenen azpian beti be: *Errebido, Perularra, E'tar G.*

Gaurko saiorako idazle izatea aukeratu dogu gaitzat, beste jarduera batzuen artean horretan be ibili zan ezkerero. Libururik argitaratu ezik normalean inor ez da idazletzat aitatzen, beste era bateko lan solteak gehien eginda be. *Sutondoan* izeneko liburu sorta honetan bertan Jean Hiriart-Urruti, Karmelo Etxenagusia, Sorne Unzueta eta besteren bat edo beste idazleen errepertorio-ra ekarri izan ditugu, han-hor-hemen argitaratutako idazlan laburrak batuta liburu baten egile bihurtu eta gero.

Gorgonioren kasura itzulita, aldizkari askotan parte hartu eban. Gehien-gehien *Euzkadi*, *Ekin* eta *Euskalzalzen* argitaratu eban, baina beste batzuetan be ez gitxi: *Baserritarra*, *Bizkaitarra*, *Eguna*, *Euskalduna*, *Euzko Deya*, *Euzko Enda*, *Ibaizabal*, *La Baskonia*, *La Patria*, *Nación Vasca*. *Izartu euskaldunak!* *Elantxobetar baten olerkiak* eta *artikuluak* izena emon deutsagun liburuan batu ditugu harek idatzitako guztiak, ustez behintzat.

Idazlanei jagokenez bertso eta prosazko lanak ditu. Kopuruari erreparatuta bertsozkoak gehiago dira, baina orritan prosazkoak erdia baino gehiago osatzen dabe. Bertsoak sorkuntzazkoak dira, lirikotasun eta sentimendu adierazpen handienekoak. Baten bat abestekoa da, eta beharbada beste batzuk be kantatzeko pentsatuta dagoz. Prosazkoak sorkuntza edo fikzinoa baino gehiago artikuluak dira, mezu ideologikoa zalbaltzekoak, gehienetan euskera erabiltzearen alde eta euskaltasuna harrotasunez bizitzearen aldeko mezuak zabalduz.

Elantxobetarra izatea ageri-agerian dago testu guztietan, eta kostaldekoa ezeze itsasgizona izanda, itsasoak leku handia hartzen dau normala danez. Herria eta euskaltasuna bizi-bizirik dagoz bere idatzietan, jeltzaleen ideologiari jagokon moduan kristautasunari lotuta, Begoñako Ama Birjinarenganako debzinoaren bitartez, kasurako.

Bertsoetan bere garaiko beste bertsozile batzuen idazlanetan aurkitzen doguzan gaiak irakurriko ditugu. Abertzaleen sinboloak: non dagoz gure arbasoak eta gure aurrekoen ohitura onak. Hareek barrero baletoz, sinistu be ez leukie egingo euren Herria lege zaharrak galduta eta euskerea aldentuta dagoela.

Haretza, zuhaitz donea, paradisukoa eta kondairaren erakusgarri be aitzten da behin baino gehiagotan. Amaren irudia maitagarri eta maitatua da. Ama Birjina, Begoñako Ama batez be, amatasun-maitasunik handienaren adierazgarri eta herriagazko lokarri hautsiezina da. Aurrekoakaz lotuta, etxetik urrun dagoanean Herria, ama eta Elantxobe bera be maiteago agertzen ditu, herri-minez edo.

Aberriaren alde bizitza emoteraino egiteko deia, baten bat bidean galdu ezkerro barriak etorriko direla esanez. Abertzaleak aberriaren alde egiteko deia, albora begitu edo atzean geratu barik. Dantzarako bertsoak be badaukaz, gazteek euskerazko kantuak jakin ez eta beste era batekoak abestu eta dantzatzeko joerea ikusita, eta horrek ardura emonda.

\* \* \*

Hitz lauukoetan aurretik esandako gaiak ikusiko ditugu barrero be. Haste liburuari izentzat ipini deutsagun artikuluarena: «Izartu euskaldunak» horretan hizlari ikusten dogu, jendeari deika aberriaren alde asaben negarrak entzunda.

Bilboko eta Bizkaiko barri laburrak emoten ditu artikuluetakoko batzuetan, politikariak eta hedabideak gai hartuta askotan. Madrileko agintarien esanak ahoan hartuta, eta egunkarietako barriak zelan emoten diran ironia handiz darabil.

Euskaldunak jopuak gara Gorgonioren esanetan. Beste inork gure izaera, gure nortasuna eta gure hizkuntza zapaldu eta baztertzen ditu; baina euskaldunok errukarriak gara, bestalde, gure hizkuntza alde batera itxi eta erderara jotzen dogunean, baita gure burua barregarri itxita be.

Euskalduntasuna harrotasunez defenditzeko deia eta eskaria egiten dau. Neska moderno-itxurakoak erderaz egin ezinik, edo euskaldunak merkatarien aurrean, hareei dirua emoteko dala jakinda, lotsatuta ikusteagaitik hasarratu egiten da.

Azalpenok emoteko gertaerak hartzen ditu oinarritzat batzuetan, benetako pasadizoak jarrita adibidetzat. Esaera zaharrak be behin baino gehiagotan dakarz harira gero azalduko dauanaren mezua laburtzeko.

Gorgonioren idatzietan mezua argi eta artez adierazita dago, genioa ageri dau. Gidari, maisu, aintzindari irudia indartsu erakusten dau, umorez be bai batzuetan, ironia eta hasarrea baztertu barik.

\* \* \*

Hasieran esan dot Jule Renteria, Gorgonioren alabea, hasi zala lan hau egiten. Berak ezin ikusi izan dau aitaren idazlanen bilduma argitaratuta, bai osteraren ahizteak, Amaia Renteriak. Jose M<sup>a</sup> Bengoa senarragaz batera Venezuelatik etorri barri dagoala, berari eskaini gura deusat lan hau, biajearen nekea arintzeko astirik barik gaurko ekitaldirako hurreratu diralako eta lan honetarako abegi onez hartu nabelako beti.

## OLERKI BARRIAK KALIFORNIATIK BIALDUAK (1)

Elantxobetarra naz (2)  
ezin dot ukatu  
neure herri maitea  
nahi neuke goraldtu;  
herri ederrak asko  
munduak baditu  
neuretzako hobarik  
ezin dot aurkitu,  
ene ama laztana,  
eleiza ta portu,  
neure maiteak dira  
ezin ditut ahaztu.

The image shows a musical score for the song 'Elantxobetarra naz'. It consists of five staves of music in a single system, written in a treble clef with a key signature of three flats (B-flat, E-flat, A-flat) and a 3/4 time signature. The lyrics are written below the notes. The score is as follows:

E lan-txo-be-ta - ra naz e - nin dot u - ka - tu neu - re her - ri mai -  
te - a nahi neu - ke go - rai - da he - rri e - de - rrak as - ko mun - du - ak ba - di - tu neu -  
re - ta - ko ho - ba - rik - e - nin dot aur - ki - tu e - ne a - ma laz - ta - na - e - lei - za ta por -  
tu - neu - re mai - te - ak di - ra e - nin di - tut ahaz - tu neu - re mai - te - ak di - ra e - nin  
di - - - - tut ahaz - tu.

(1) «Begoñako Ama» artikuluan kantu honen hirugarren ahapaldia dakar. *Euzko Deya*-koan lehenengo, bigarren eta laugarren ahapaldiak dakartza.

(2) Elantxobeko abesbatzak kantatua.

Hortxe jaio nintzan da  
hortxe nintzan hazi,  
neure ama negarrez  
hortxe neban itxi.  
Nanita Kalifornian  
luzaroan bizi  
egunero zaituet  
gomutaz ikusi,  
iruditxu maiteak  
ez dauste igesi,  
eurak dira ba neure  
jaube ta nagusi.

Ama Begoñakoan  
irudi maitea  
idunetik zeustana  
ipini eskegia,  
bular ganean jabilt  
maitero gordea:  
bera da neure lagun  
eta zaindaria,  
berak alaituten deust  
mendiko bizia,  
bera da, zeure ordeez,  
amatxu neurea.

Euzkadiko herritxu  
itxasertzekoa  
arrantzale apalen  
habia gozoa.  
Nebadako mendian  
jaurtitako oihua  
itxas ganean zehar  
zuganantza doa,  
ene bihotz agurrau  
beragaz daroa  
Gora Euzkadi eta  
neure herritxua!

*Ekin, 1932*